## hoy escribe

Joxe Azurmendi(*)

# Egunkari bat euskaldunok euskaraz bizitzeko

Euskarazko egunkariaren beharra, euskaldunok daukagu. Eta euskaldunak bezala daukagu. Ez daukate Alderdiek. Edo enpresariek, Euskaltzaindiak, Filologiako Fakultateak, ez dakit zeinek. Euskaraz bizi nahi genukeen euskaldunok bakarrik daukagu.

Egia da, badauzkagula geure ideia linguistikoak eta politikoak. Baina egunkaria nahi badugu, euskaldun soil bezala da, ez politiko bezala. Horregatixe ere, egunkaria nahi dugun denok, nahi dugu egunkari zabala, irekia ez Alderdiren bati eta ez Jaurlaritzari atxekia.

Eta posible ere, horregatixe dela, uste dugu, egunkari ireki bat. Euskaldun bezala bizitzeko, nahi dugulako, eta ez beste asmoren batzuetarako. Eta guk bezala, euskaraz bizi nahi duten beste guztientzat, nahi dugulako. Ez dugu nahi euskarazko egunkaria ideologiaren baten edo joeraren baten Prawda gisa. Nahita ere seguruenik ez luke balioko horretarako (bestela aspaldi zegokeen sortuta). Eta, gainera, funtzio horietarako, badauzkagu denok beste kanal batzuk, bakoitzak bereak, eta ez ditugu baztertuko Egunkariagatik.

Izan ere, euskarazko egunkariari, zeinek eutsiko dio? Ez, erdarazkoak ere irakurtzen omen dituzten euskaldunek. Apenas, erdarazkoa besterik irakurtzen ez duten euskaldunek. Hein bateko euskaltzaleak eutsiko dio. Erdarazko periodikoak ere arrunt irakurtzen dituen irakurzale euskaldunak, eskolatu samarrak, sozial eta politikoki nolabait interesatuak. Ondorioz, irekitasunak ez du esan nahiko, apolitikoa izan beharko duenik euskarazko egunkariak. Izan beharko ez duena, dogmatiko eta alderdikoia da. Euskaltzalea eta kontzientziatua, bai. Kritikoa. Eta guzi horrek ez dirudi hain zaila. Eskrupulosoak badakigu, sekula ezin izango dela guziz kontentatu. Baina oso erraz egin ahal izango da, euskaltzalego gehienaren gustoko samarra, egunkari bat.

Are, halakoxea egin beharko da nahitaez, bizi ahal izateko ere, onarpen zabal-zabala behar izango bait du euskal irakurzaleen artean. Irekitasuna, printzipio moralen bat edo baino gehiago, errealismo kontua da, honelako enpresa batetan.

Ikastolen antzeko arazoa da nolabait. «Ahalik eta gehien-gehienena» izan beharra, bere funtzioa bete ahal izateko baldintza bihurtzen da. Izan ere, euskal irakurzaleak zenbat garen, eta gutxi-gorabehera nolako jendea garen, inork baino hobeto geuk dakigu. Lan horietan ibili ohi garenok, edozein Alderditan edo Alderdi ingurutan. Beti gutxiengotxoa izaten gara guzti horietan euskaltzaleak. Marginalak.

Problema, horregatik, oraingoz behintzat, inon egotekotan, egunkariaren irekitasunean baino gehiago, oraingoxe irekitasun faltan ikusiko nuke nik, jendearen batzuen aldetik. Suspikazietan. Susmoetan. Boikotetan, deskuidatzen bazara. Baratzezainaren zakurrarena egiten bait dugu askotan: geuk ez jan, baina ez inori jaten utzi ere, sagarrak.

Nik JAKIN-en esperientzia ezagutzen dut ongienik eta horretan badaukat konfidantza. Irekitasuna, diferente pentsatzen duen jendearen lankidetza, irekitasunezko produktu bat ateratzea, ez da batere problemarik, euskarari zinegindako euskaltzale artean. Are, iraun nahi bada, ez dago besterik. Ez dago kapilatxoan entzerratzerik. (Kapilak erdaraz bakarrik egin litezke: euskaraz gehienik ere ermitaino izatetik ezin pasa, ala zabal jokatu behar). Honelako lanetan sartu orduko ikasten du euskaltzaleak, herri txikitxoa garela eta euskarari buruz ez dagoela planteamendu estuekin ibiltzerik. Euskaltzalea ere, genero berezi bateko animalia dela. Euskararen planteamenduek beren autonomia osoa behar dute. JAKIN bezalako aldizkari batean baino ere gehiago, ordea, egunkarian izango litzateke absurdua, suizida, planteamendu ireki bat ez egitea. Ez zabal jokatzea. Hori euskaltzale guztiok dakigu, halaxe dela. Posibilitate bakarra horixe delako. (Azkeneko xentimoraino Jaurlaritzak subentzionatua nahi ez badugu behintzat). Ez dago, beste posibilitateren baten zer beldur izan. Ala irekia izango da, ala bulegoak beharko ditu laster itxi.

Dena dela, egunkariaren irekitasuna, definitu baino gehiago, egin egin beharko da praxian. Eginez ikasiko da nola egin. Eta denok ikasi beharko dugu, kazetariek bezala kazeta irakurleok, ze, orain arte ez da egon, behar dugun eta nahi dugun egunkari hori. Beraz, ezta irekitasun modu hori ere. Eta asmatu egin beharko bait da, nolakoa egin, orain.

Nik espero dut, egunkaria ez dutela erredakzioko kazetariek bakarrik egin behar izango. Euskaltzale guztiek, Alderdi guzietan, euskaltegi, eskola, toki guzietan, aktiboki kolaboratuko dutela, espero dut, kritikaz eta bultzadaz, egunkaria zinez denona izan dadin. Hots, irekia izan dadin, eta irekitasuna ez dadin izan halere asepsia.

Egunkaria denona izateko, denon artean egina izatea, izango da hoberena. Denon artean: ez orain daukanari proiektua eskuetatik kendu eta denon artean partituz, baizik eta proiektua daramanari behar duen laguntza emanez. Irekitasunaren lehen proba hortixe hasiko da.

(*) «Egunkaria Sortzen» talde eragileko kidea

## puntaren puntan

### Amenazas

La violenta reacción de los partidos comprometidos con el Pacto de Ajuria Enea contra HB por una imaginaria campaña de amenazas a la Ertzantza sólo puede entenderse desde la más tortuosa estrategia diseñada para neutralizar a la única fuerza de oposición política integral.

Mal que le pese a alguno, la pretendida campaña de amenazas y coacciones contra la Ertzantza no pasa de ser un simple y hasta saludable ejercicio de crítica y denuncia de actitudes y actuaciones no acordes con lo que se proclamaba una policía civil, democrática y al servicio del pueblo vasco. El intento de anular la denuncia, crítica y hasta la actividad política de la oposición cuando ésta lo es en su integridad, no es tampoco una nueva aspiración de los detentadores del poder y sus aliados, pero en ningún caso pertenece a la cultura democrática tan socorrida en estos tiempos.

El pronunciamiento de ayer no puede interpretarse sólo como una declaración solemne de apoyo incondicional a la Ertzantza, sino como un nuevo capítulo del lamentable *culebrón* que protagoniza el Gobierno español junto a fuerzas vascas contra la opción rupturista abertzale. Lo que debieran considerar los socios del Pacto es que cuando ellos se han sentido amenazados los tiros han ido, invariablemente, en la dirección opuesta.

Martín GARITANO

## hemeroteca

### El Estado esquizofrénico

*(Landru, «El Mundo», 18-5-90)*

Las autoridades sanitarias advierten que: «fumar perjudica seriamente la salud». Este mensaje que el Estado ha ordenado inscribir en todas las cajetillas de cigarrillos es, aparte de una breve antología del disparate gramatical, un ejemplo acabado de hipocresía: el mismo Estado que ha hecho del comercio de tabaco una saneada fuente de beneficios se permite sermonear en contra de lo que vende. Ahora se dispone a dar un paso más hacia la esquizofrenia institucional, prohibiendo la publicidad de labores de tabaco. Déjense de pamplinas: si tan mal les parece, échenle el cierre a Tabacalera, S.A. Y no si, chitón.

### Arte en el mercado

*(«The Times», 17-5-90)*

(...) ¡Monstruoso!, gritan los aguafiestas. ¿Cómo puede una pintura valer tanto? ¡Es una vergüenza!, gritan los museos públicos. ¿Cómo podremos nunca permitirnos adquirir una obra maestra? Ambos deberían pensárselo dos veces.

El precio de una pintura está determinada, como el precio de cualquier cosa, por la oferta y la demanda. La oferta de viejos maestros es, ya que los pintores están muertos, fija. Por otra parte, la oferta de estas obras que salen al mercado es, por definición, rara, fundamentalmente porque casi todos han sido comprados por los museos nacionales.

(...) Las economías de EE.UU. y Japón han tenido un mayor desarrollo que la británica, por lo que esos dos países tienen más dinero para gastar en arte. Pero los británicos pueden estar agradecidos porque, a diferencia de los japoneses, ellos han tenido siglos y siglos para formar sus colecciones de arte, muchas de las cuales fueron expropiadas a otros países o compradas a muy bajo precio.

### Los muertos que vos matáis

*(Luis Blanco Vila, «Deia», 18-5-90)*

Y no me refiero a los muertos del Metro de Madrid. Desde que los vigilantes del Metropolitano están en huelga, mes y medio aproximadamente, ya han sacado al menos tres cadáveres de los subterráneos del transporte más popular de la capital. El último, el pasado miércoles. (...) Madrid, paraíso de la delincuencia y del abandono, de la vida alegre y de la miseria.(...).

Pese a lo cual, no me refiero a esos muertos. Tampoco quiero referirme al muerto no fallecido anunciado oficialmente por el Ministerio de Justicia y corroborado por el ministro de Interior. Tanto Enrique Múgica como José Luis Corcuera no sólo dieron por cierto el óbito del grapo José Manuel Sevillano, sino que ambos ministros, y de manera especial Corcuera, anunciaron que se habían puesto en marcha especiales para prevenir atentados que pudieran producirse después de la muerte de Sevillano. (...) Un lapsus oficial del Ministerio de Justicia.

Pero tampoco quería hablar hoy de esos muertos que están vivos, aunque no se pueda decir que gozan de buena salud después de meses de huelga de hambre sui géneris. Yo quería referirme a los muertos políticos, tan abundantes en los últimos meses, y, si es posible, de los vivos políticos que no están dispuestos a morir todavía.

(...)




"El Mundo"